

**KARRERA-AMAIERAKO PROIEKTUEI ETA
GRADU BUKAERAKO LANEI LAGUNTZA
EMATEKO
VIII. PROGRAMA
“ESPEZIFIKAZIOAK”**

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUEI ETA GRADU BUKAERAKO LANEI LAGUNTZA EMATEKO VIII PROGRAMA

“ESPEZIFIKAZIOAK”

UPV/EHUko Gipuzkoako campusak eta BIC GIPUZKOA BERRILANek (Europako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa) garatzen eta kudeatzen duten **ENTREPRENARI programaren** esparruan, **“Karrera-amaierako proiektuei eta gradu bukaerako lanei laguntza emateko” VIII. programa** sustatu dute. **ENTREPRENARI programaren** helburua da ekintzaileei bultzada bat ematea, eta aholkuak eta laguntza eskaintzea, EHUko Gipuzkoako campusean enpresa berritzaileak sor ditzaten.

ENTREPRENARI Programan erakunde hauek hartzen dute parte: GIPUZKOA FORU ALDUNDIKO Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua, SPRI, EUSKO JAURLARITZAKO Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, EL DIARIO VASCO, EHUko Gipuzkoako campusa eta BIC GIPUZKOA BERRILAN.

Manuel Laborde Werlinden Sariarekin bezala, lehiaketa honekin ere **ekimen ekintzailea eta berrikuntza** sustatu eta aintzat hartu nahi dira, eta garrantzi berezia eman nahi zaie unibertsitateko taldeek, daukaten know-how delakoa oinarri, sor dezaketen **berrikuntza teknologikoari eta ezagutzari**.

ENTREPRENARI programaren filosofiari jarraiki, parte hartzen duten erakundeek benetako enpresa bihur daitezkeen ekimen berritzaileak babesteko eta sustatzeko apustuari eutsi diote; ekimen horiek, betiere, Euskal Herriko enpresa-sarearen berritze eta modernizatzeko prozesua egonkortu behar dute, unibertsitatearen testuingurutik enpresa berriak sortuz.

I.- HELBURUAK

- 1) Ikasle eta irakasleengan kultura ekintzailea sortzea.
- 2) Ikasle eta irakasleak ekimenak sortzeko formatzea; horretarako, negozio-aukerak definitzeko prozesuan parte hartuko dute.
- 3) Unibertsitateko ezagutza baliatzea, merkatuko berrikuntza posible moduan.
- 4) Unibertsitatearen inguruan ideia eta enpresa berritzaileak sustatzea.

II.- NORI DAGO ZUZENDUA

- 2010-2011 ikasturtean **karrera amaierako proiektuetan** matrikulatuta dauden edo proiektua aurkeztu duten ikasleei eta beti ere, merkatuan proiektua aztertzeko borondatea dutenei, eta hala izanez gero, Gipuzkoan aurrera eramateko.

Proiektuak banakakoak edo enpresarekin egindakoak izan daitezke, haren laguntza izanez gero.

III.- PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

- UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko ikasleak izan behar dute.

IV.- DIRU-LAGUNTZA

Babesa izango duten proiektuek **5.000 €** - rainoko diru-laguntza jasoko dute 6 hilabetetan zehar haien aurrebideragarritasuna eztertzeko. Dirulaguntza honetarako izango da:

- Ikaslearentzako diru-kopurura (300 € hilero)
- Negozio ereduaren azterketa eta definizioa egiteak dakartzan gastuak. (2.500 € arte)
- Unibertsitateko tutorearen aholkularitza Teknikoa/Teknologikoak dakartzan gastuak (kasu bakoitzarentzat egingo da estimazioa).

Azterketan zehar, BIC GIPUZKOA BERRILANen azpiegitura eragileak eta aholkularitza izango dute.

ENTREPRENARI Programaren barruan antolatuko diren enpresa kudeaketarako trebakuntza ikastaroetan ere parte hartzeko aukera izango dute.

Eta mekatal bideragarritasunaren kasuan, **TXEKINTEK/EKINTZAILE Programan** jarraitzeko aukera ere bai (60.000€-ra arte), Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapenerako, Berrikuntzarako eta Ezagutzarako Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Industri Saileko Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietateak (SPRI) antolatzen dira, edo **BARNETEKIN Programaren** barnekoak (60.000€-ra arte) enpresa ekimen hori merkaturatzeko asmoa duten enprekin elkarlanean egindako proiektuentzat.

V.- HAUTAGAIEN BALIOESPENA

Aurkeztutako proiektuak eta memoriak **Entreprenari Programa** antolatzen duten erakundeetako adituek osatutako Batzorde Teknikoak ebaluatuko ditu:

Alderdi hauek balioetsiko dira, bereziki:

- ikaslearen profila eta ekimena aurrera eramateko motibazioa.
- planteatzen den produktuaren/zerbitzuaren berrikuntza- eta aukera-maila.
- Irakasleek Proiektua babesteko euskarri eta laguntza.
- Enpresen bitartez aurkeztutako proiektuei euskarri eta laguntza.

VI.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA BESTE GAI BATZUK

1. Izena emateko orria.
2. Proiektuaren justifikazio-memoria (2 ale), honako hauek bertan dituelarik:
 - Merkatuan duen aukeraren ikuspegitik eta lehiaketa antolatzen dutenek egindako ereduari jarraiki proiektuaren deskribapena *
 - Txosten tekniko/teknologikoa
3. Eskatzaileak lehiaketan parte hartzeko dituen arrazoen azalpen laburra (gehienez, bi orrialde).
4. Enprekin kolaborazioko proiektuei dagokienez, enpresa proiektuarekiko zein posizioan dagoen azaltzen duen dokumentua aurkeztuko da (interesa, kolaborazio mota).
5. Proiektua ebaluatzeko eskatzaileari interesgarria iruditzen zaizkion beste dokumentazioak.

Lehiaketako epaimahaiak, egoki iruditzen zaizkion kasuetan, informazio gehiago eskatuko du edo partehartzaileekin elkarizketa pertsonalak izango ditu.

* Proiektuaren memoria aipatu ereduari jarraiki egingo da. Proiektu guztiak ez daude garapen-maila berean; beraz, ez da beharrezkoa puntu guztiak betetzea, nahikoa da informazioa duten horiek bakarrik erantzutea.

VII.- AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Proiektuak aurkezteko aukera ikasturte osoan zehar izango da. Proiektuak aurkezten diren heinean, epai-mahaiak euren egokitasuna ebaluatu eta behar den kasuetan bere garapenerako laguntza eskeinitu du.

Lehiaketari buruzko informazioa eta dokumentazioa web orrialde honetan dago: www.entreprenari.com

Edozein informazio edo argibide nahi izanez gero:

ENTREPRENARI GUNEA –Aula Bic

Joxe Mari Korta Zentroa

Tolosa Hiribidea, 72. 20018-DONOSTIA

 943 015 473 / 943 000 999

Harremanetarako pertsona: Laura Espin

E-mail: entreprenari@ehu.es

Saria eskuratu ahal izateko behar den dokumentazioa kartazal itxietan aurkeztuko da helbide honetan.

OHARRAK

Epaimahaiko kideak isilpean gordeko dituzte aurkeztutako proiektuak.

Ez da epaimahaiaren ardura aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatea. Alde horretatik, lehiaketaren ondorioz hirugarren pertsonen iruzur edo kalte egiten bazaie epaimahaiak eskumena dauka beharrezko ekintzak burutzeko.